

Albisteak

Prozedura Zibileko Lege berriari buruzko euskarazko Jardunaldiak

Prozedura Zibileko 1/2000 Lege berriaren inguruko euskarazko jardunaldiak izan dira apirila eta maiatzean zehar Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetan, Abokatuentzako Prestakuntza Programaren Euskarazko Trebakuntza Ikastaroen barruan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eta Legelarien Euskal Kontseiluaren eskutik.

Ikastaro honetan, **Eleriak** argitara eman berri duen "Prozedura Zibileko Lege berria" izeneko eskuliburua aurkeztu zen. Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Prozesaleko irakasle talde bat arduratu da Lege berriaren nondik norako nagusiak euskaraz azaltzeaz, Iñaki Esparza doktorearen zuzendaritzapean.

Jardunaldi hauek Juan Ramon Ugalde abokatuaren ekimenez gauzatu ziren, eta zehazki hauetxek izan ziren aztertu zituzten alderdiak: "Prozesu zibil berriaren printzipioak" Iñaki Esparza Leibarrek, "Prozesu arruntak" Alberto Saiz Garitaonandiak, "Helegite sistema berria" Ixusko Ordeñana Gezuragak, "Judizio aurreko entzunaldia" Patxi Etxebarria Guridik eta "Prozesu monitorioa" Katixa Etxebarria Estankonak.

Bizkaiko zein Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetako egoitzetara, Bilbora eta Donostiara hurrenez hurren, Prozedura Zibileko Legearen berrikuntza eta ekarpen nagusiak euskaraz entzutera bildu den profesional kopurua ikusita, ekimen hau guztiz positiboa izan dela esan daiteke.

Nafarroako euskararen egoera aztertu du Euskara Kultur Elkargoak

Euskara Kultur Elkargoak euskarak Nafarroan bizi duen egoera aztertzeko jardunaldiak antolatu zituen Iruñean, abenduaren 14 eta 15ean. Nagusiki hiru izan ziren horretara bultzatu zuten arrazoiak: batetik, 2001. urtea Hizkuntzen Europako Urtea izendatu izana, bestetik Vascuencearen Legeak Nafarroan hamabost urte bete izana, eta azkenik Espainiako Gobernuak Hizkuntza Gutxituen Europako Agiria birsinatu izana. Horiez gain, Nafarroako Gobernuak azken urteotan euskarari dagokionez hartzen ari den erabakiek ere azterketa sakon bat egiteko premia erakusten zuen.

Jardunaldi hauetako lehenengo egunean Mikel Etxebarria EBLULen euskal ordezkaria, Jose Maria Satrustegi euskaltzaina, Aureli Argemi CIEMENeko presidentea eta EBLULen estatuko ordezkaria, eta Bojan Brezigar EBLULeko presidentea mintzatu ziren. Bigarren egunean, berriz, euskarak administrazioan duen egoera juridikoa aztertu zuten Isidro Rekarte euskara teknikariak eta Jose Maria Rodriguez Otxoa Hizkuntza Politikako zuzendari ohiak; irakaskuntzan duen egoera juridikoaz Maite Gorospe DBIko euskara irakaslea, Pablo Sotés NUPEko irakaslea eta Franciska Zabaleta NUPEko irakaslea aritu ziren; eta gizartearen duen eraginaz, berriz, Alberto Barandiaran kazetariak eta Carlos Vilches soziologoak jardun zuten.

Gai honekin lotuta, Euskara Kultur Elkargoko lehendakaria den Jose Luis Mendoza Peñak euskarak Nafarroan duen egoera juridikoaren berri ematen digu ale honetan bertan, Hizkuntza Zuzenbidea atalean.

Pornografiaren berdefinizioaren beharra aztergai UEUren XXX. Udako Ikastaldietan

Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) XXX. Ikastaldietan, ekintza pornografikoen berdefinizio eta berregituraketari begira jarriko da aurtengoan Zuzenbidearen arloa uztailaren 16tik 18ra. Gorputzaren ulermen eta ezagutzan aldaketak

ematen ari diren garai honetan, emakumezkoen gorputzean ipiniko dute arreta, ekintzen protagonista aktibo eta pasiboa gisa, eta legediak ekintza hauek nola mugatzen eta definitzen dituzten aztertuko dute Maider Cilvetik eta Jurgi San Pedrok. Informazio gehiagorako: www.ueu.org

Alderdi Politikoen Legea eztabaidagai

Abokatu Euskaldunen Sindikatuak eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak Alderdi Politikoen Lege berriari buruzko jardunaldiak antolatu zituzten uztailearen 4 eta 5ean Bizkaiko Abokatuen Bazkunean. Saio hauek euskaraz garatu ziren. Antolatzaileen borondateetik kanpoko arrazoiengatik, lehenengo eguneko saioa bertan behera gelditu zen. Bigarren egunean, ostera, Iñigo Iruin abokatua eta legebiltzarkide ohia, Joserra Lopez-Larrinaga abokatua eta EAko zuzendaritzako kide ohia, eta Mikel Arana legelaria mintzatu ziren Legearen inguruko alderdi desberdinei buruz.

Zuzenbideko euskal hizkera bereziari buruzko tesia defendatu du Antton Elosegik

“Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologi-koa” izenburuko tesia aurkeztu zuen Antton Elosegi Aldasoro irakasleak ekainean, Euskal Herriko Unibertsitatean. Bi atal nagusitan dago banatuta aipaturiko tesia: batetik, hizkera juridikoaren eta terminologiaren kontzeptu nagusiak zehazten ditu, eta euskal testu juridikoen historia xumea egiten. Bestetik, Euskal Herriko aldizkari ofizialetan 1936tik 1997ra bitartean argitaratu diren arau nagusien terminologiaren hustuketa eta termino horien deskribapen linguistikoa egiten du. Ikuspegi terminologikotik ere hainbat azterketa burutzen da. Miren Azkarate izan da tesiaren zuzendaria, eta Ibon Sarasola izan da epaimahaieko lehendakaria. Bikain cum laude kalifikazioa jaso du tesiak.

Abian da Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutua

Euskal Zuzenbidea aztertzen jardungo duen erakunde baten beharraz jabetuta, Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutua eratu da Euskal Herriko Unibertsitatearen babesean. Donostian kokaturiko Institutu honen helburuen artean, honakoak ditugu: historian zehar Foruetan oinarritu den gizarte politikoaren eta egungo foru antolamenduaren inguruko ikerketak sustatzea, euskal zibilizazio juridikoari buruzko liburutegi birtual bat sortzea, urtero gai monografiko baten inguruko Symposium bat antolatu eta Foru Ogasunaren Klasikoak saileko liburuki bana argitaratzea, Institutua nazioarteko ikerketa batzordeetan sartzea, eta Euskal Herriko Zuzenbide Historikoarekin erlazioz gaitutako gai buruzko aholkularitza tekniko eskaintzea.

Joseba Agirreazkuenaga da Institutuko zuzendaria, eta Gregorio Monreal zuzendari zientifikoa. Kontseilu Errektoreko gainerako kideak, berriz, M^a Rosa Ayerbe, Jon Arrieta, Eduardo J. Alonso, Jose Manuel Castells, Juan Igartua eta Jon Koldobika Urrutia ditugu, eta Roldan Jimeno da idazkari nagusia.

Iazko azaroaren 22 eta 23an, *Euskal Herriko lurraldeetako Zuzenbide Historikoa: sortzaile eta eragileak* izenburuko Symposiuma antolatu zuten, eta urrian ospatzekoa den aurtengoan, berriz, *Euskal Herriko lurraldeetako Merkataritza askatasuna eta Aduanak* izango dituzte aztergai.

Beren jardueren eta asmoen berri emateko, *Newsletter* deritzon buletin elebiduna argitaratzen dute.

Inguma, euskal komunitate zientifikoaren datu basea

Azken 30 urteetan jakintza alor desberdinetan euskaraz ahoz nahiz idatziz sortu denaren inguruko datu basea da *Inguma*. Interneten, www.inguma.org helbidean, euskal komunitate zientifiko-intelektualaren produkzioaren berri emateaz gain, aditu euskaldunekin harremanetan jartzeko bide ematen da.

Udako Euskal Unibertsitatea dugu datu base honen egilea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren babesarekin.

Justizia Sailetik zer berri?

Justizia Saileko aldaketak

2001eko azaroaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailean Sabin Intxaurre Mendibilen ordezkari Joseba Azkarraga Roderok dugu orain Justizia sailburu, eta Abel Muniategi Elorza sailburuordearen lekuan, berriz, Esther Larrañaga Galdos.

Justizia.net, Justizia Sailaren web orri berria

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak *justizia.net* helbidea duen web orria aurkeztu du: **www.justizia.net**. Joseba Azkarraga sailburuak adierazi duenez, Interneteko nabigatzaileak hainbat zerbitzu etxetik bertatik erabiltzeko aukera izango du, horrela erregistroko ziurtagiriak, subasta judizialei buruzko informazioa, epaimahaietan parte hartzeko datuak, prozesuen garapenari buruzko txostenak, Justizia jauregiei buruzko xehetasunak, eta abarren inguruko berriak jasoz.

Web orri honetan, alde batetik, Euskal Herriko Justizia Administrazioari buruzko informazio orokorra eskaintzen du (banaketa lurraldetarra, epaiketa baten garapena, etab.), eta, bestetik, herritarrek ordenagailuaren erabili ahal izango dituen zerbitzuak (Erregistro Zibila, enkante judizialak, testu elebidunak, etab.). Azken hauen arten, aipagarriak dira, halaber, Herritarrentzako Informazio Zerbitzua, Orientazio Juridiko Zerbitzua, Famili Bitartekaritzarako Zerbitzua, Atxilotuari Laguntza emateko Zerbitzua eta Biktimari Laguntza emateko Zerbitzua.

Justizia jauregi berria Donostian

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikin judizialak berriztatze-ko Planean aurreikusita zegoen bezala, urtarriean Donostiako Justizia jauregi berriak bere ateak zabaldu ditu. Angel de la Hoz arkitektoak diseinaturiko eraikinaren inaugurazio ekitaldian Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Joseba Azkarraga Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua, Manuel María Zorrilla, Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea, eta Fernando Salinas, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko presidenteordea bildu ziren, besteak beste. Egun Donostian kokatuta dauden zerbitzu eta epai-tegiak Egia auzoko egoitza berrira lekualdatuko dira, nahiz eta Auzitegi Probintzialaren hiru sekziok San Martin kalean jarraituko duten.



Eusko Ikaskuntzako azken berriak

Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresua

2001eko azaroaren 28tik 30era bitartean, Donostiako Kursaal jauregiak Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresua hartu zuen bere baitan, *Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak* lemapean. Jardunaldi hauetara hamaika herrialdeko ehun aditu inguru bildu ziren Euskal Herriko Antropologia, Zuzenbidea, Historia, Soziologia, Literatura, Teknologia Berriak eta Artearen egoeraz eztabaidatzeko xedean.

Kongresua sei sailetan egituratu zen: horietariko hiruk hirugarren milurtekoaren atariko gizarte, erakunde, ekonomia eta politika koordenatu berrien azterketari ekin zioten, euskal gizarte eta kultura esparruan duten eragina ere kontuan hartuz, eta beste hirurek zientzia eta arte diziplinen egungo egoera aztertu zuten, azken iraultza teknologikoak sorturiko eszenategian.

Jesús M^a Alkain Martikorena, Eusko Ikaskuntzako diruzain izandakoari omenaldi bat ere eskaini zitzaion.

Funtsean, euskal gizarte eta bere etorkizuneko aukerak ezagutzeko eztabaida-gune garrantzitsu bat izan da Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresu hau.

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria, José Miguel de Azaolarentzat

José Miguel de Azaolak ikertzaile bilbotarrak bere bizitzan zehar euskal kulturaren alde egindako lan oparoagatik Manuel Lekuona saria jaso zuen Alcalá de Henaresko bere etxean, Juan José Goiriena de Gandarias Eusko Ikaskuntzako lehendakariaren eskutik.


Ikertzaile honek gai anitz izan ditu ardatz kaleratu dituen liburuetan: Euskal Herria (*El País Vasco; Vasconia y su destino I y II*), Europar (*En busca de Europa; La Unión Europea hoy*); Unamuno (*El mar en Unamuno; Unamuno y sus guerras civiles*). Hainbat eleberri ere idatzi ditu (*La depreciación del hombre; El pan de nadie*).

Azaolak bere gurasoei eta, batik bat, bere emazteari eskaini zien saria.


Bibliografia

Monografiak

ESPARZA LEIBAR, Iñaki (koord). *Prozedura Zibileko Lege berria*. Donostia: Eusko Ikaskuntza; 2001; 181 or. *Eleria Testuak* saileko bigarren eskuliburu honetan, Prozedura Zibileko 1/2000 Legearen berrikuntza eta ekarpen nagusiak xehetasunez aztertu dituzte Zuzenbide Prozesalean aditu diren Iñaki Esparza, Katixa Etxebarria, Patxi Etxebarria, Juan-Luis Gómez Colomer, Jesús M^a Izaguirre, Gilen Ormazabal, Edmundo Rodríguez Achútegui eta Alberto Saizek. Zehazki, Prozesuaren printzipioak, Prozesu arruntak, Judizio aurreko entzunaldia, Prozesu monitorioa, Inpugnatzeko baliabideak, Kautelazko neurriak eta Frogaren arauketa dira landu dituzten alderdiak. Era berean, baterakuntza terminologikoan aurrera egiteko asmoz UZEIk prestaturiko glosario terminologikoa darama eskuliburuak eranskin gisa.



ORELLA UNZUÉ, José Luis (koord). *Gipuzkoa versus Castilla: konkista, ituna eta eskubide historikoak, 1200-2000*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia; 2001; 166 or. José Luis Orella Unzué, Xosé Estévez Rodríguez, Alvaro Aragón Ruano, Lourdes Soria Sesé eta Emilio Olabarria Muñozen lanak jasotzen dira Gipuzkoa eta Gaztelaren arteko harremana hainbat alderditatik aztertzen dituen bilduma honetan. Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean 2000ko urrian izandako jardunaldi batzuren emaitza dugu liburu hau.




TOPAGUNEA. *Euskara elkarten kudeaketa*. Donostia: Euskara elkarten federazioa; 2001; 181 or. *Topagunea*-k, Euskara Elkarten Federazioak, liburu batean bildu ditu 2001eko urtarrilean Gernikan *Euskara elkarten kudeaketa*-ri buruz izan ziren jardunaldietako hitzaldiak. Honakoak, zehazki: *Enpresa kudeaketa euska-*



ra elkarteetan; Kudeaketarako errekerimenduak lege betekizunetan; Errekerimenduak kudeaketa administrazio-ekonomikoan; Euskara elkarten finantzaketa. Izaera juridiko eta barne egitura ezberdinak; Euskara sektore ekonomiko gisa; Erakunde publikoekiko harremanak nola optimizatu; Enpresa pribatuak kultur jardueren babesle ekonomiko gisa; Haurrak; Euskaldunberriak; Kultur jarduerak; Gazteak; Erakundeen euskalduntzea; Hedabideak; Nola atera etekina teknologia berriei; Nola sustatu partaidetza euskara elkarteetan; eta Prestakuntza iraunkorraren garrantzia.

TREBIÑO BARRUETABEÑA, Imanol. *Administrazio zibileko testu historikoak*, Oñati: HAE-IVAP, 2001; 776 or.

Hainbat urte ikerketa eta bilketa lanetan eman ostean, historian zehar euskaraz idatzi diren administrazio zibileko testuak liburu batean bildu ditu Imanol Trebiñok. Kronologikoki antolatuz, Ipar zein Hego Euskal Herriko alkateen gutunak, bandoak, udal ordenantzak, udal aktak, diputazioetako zein batzar nagusietako agiriak, beren garaian euskarara itzulitako Frantziako nahiz Espainiako lege eta dekretuak, eta beste hainbat eta hainbat administrazio zibileko dokumentu topa genitzake.




Artikuluak

ABALDE CANTERO, Oscar; ABALDE KALPARSORO, Anjel. "Auto-determinazio eskubidea eskubide kolektibo gisa: eskubide-teorien erronka", In: *Uztaro*, 36. zkia., 2001; 73-92 orr.

Artikulu honetan, autodeterminazio eskubidea eskubide kolektiboen paradigma gisa aurkezten zaigu. Lotura horren helburua, bata zein bestea ezagutzeko orduan agertzen den kontrako jarrera aztertzea da, eta, bereziki, jarrera hori arlo juridikoari edo ideologikoari ote dago-kion ikustea.



BURLADA ETXEBESTE, Inés María. "Arbitraiaren izaera juridikoari buruzko nota", "Sinpekorako hautagaia izateko bateraezintasunei buruzko notak", "Zor monitorioaren kredituriko teknika monitorioa", In: *Revista Vasca de Derecho Procesal y Arbitraje*, XIV. zkia., 2002; 63-73 orr.



Hiru artikulutxo prestatu ditu egileak ale honetarako: lehenengoan, arbitraiaren izaera juridikoa aztertu du, adieraziz hitzarmen arbitrala ezohiko negozio juridiko bat dela, dauzkan ondorio prozesalengatik; bigarrenean, zinpekoa izateko Legeak aipatzen dituen bateraezintasun politiko eta funtzionalak, eta, azkenik, Prozedura Zibileko 1/2000 Legean zor monitorioa kreditatzeko teknika monitorioa aztertzen du.

ESPAÑA, Edorta. "Inoiz ez da berandu", In: *Administrazioa euskaraz*, 36. zkia., Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2002; 17. or. Gauza jakina da Konstituzio espainiarraren eta EAEko Autonomia Estatutuaren euskarazko bertsioetan hainbat akats daudela, dela hizkuntzaren beraren aldetik, dela euskara eguneratu beharra dagoelako. Bi lege testuak onartu zirenetik denbora luzea igaro dela-eta, konponbide posibleak zeintzuk lirateke- en aztertzen du Edorta España itzultzaileak.



KINTANA GOIRIENA, Jurgi; ALFARO BERGARETXEA, Iñaki. "Euskal federalismo foruzalea Seiurteko Demokratikoan", In: *Uztaro*, 40. zkia., 2002; 37-62 orr. Artikulu honetan, Hego Euskal Herriko errepublikar federalen foruzaletasuna aztertzen da Seiurteko Demokratikoan (1868-1873). Bereziki hiru mugarrak iker- tzen dira: J. Jamarren *Lo que es el Fuero* liburua (1868), Eibarko Itun Federala (1869) eta J. Arreseren *La descentralización universal* obra (1873). Horien bidez, euskal errepublikarrek Foruez egindako interpretazio aurrerakoia jorratzen da.



LANDA, Jon M.; SAINZ DE ROZAS, Rafael. "Zigor Kodea eta zuzenbide penala", In: *Administrazioa euskaraz*, 34. zkia., Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2001; 19. or. Zuzenbidearen mundua hain aldakorra izanik, Zigor Kodearen euskarazko bertsioa prestatzearen arrazoiak ematen zaizkigu



testu honetan, adieraziz lau urteko lan honen helburu nagusia, zientzia penala euskaraz eskaintzea eta zigor alorrean euskaraz aritzen direnentzat lehenengo oinarriak jartzen ahalegintzea izan dela.


URRUTIA, Andres. "Lege-testu baten peskizan: Zigor Kodea euskaraz", In: *Administrazioa euskaraz*, 34. zkia., Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2001; 18. or.

Lege testuak euskaraz izatearen garrantziaz jabetuta, labur-labur, Zigor Kodea euskaratu izanaren ingurukoak azaltzen dizkigu Andres Urrutiak: zergatik egin den, zein xede dituen, eta zeintzuk izan diren euskarazko testua sortzerakoan kontuan harturikoak.

Hizkuntza

BIGURI, Koldo. "Elebitasuna Arabako Biltzar Nagusietan", In: *Senez*, 23. zkia., 2001; 33-40 orr.

Arabako Biltzar Nagusietan itzultzaile izanik, gertutik eza- gutzen du Koldo Bigurik euska- rak nolako egoera bizi duen bertan, eta hain zuzen ere horren ingurukoak azaltzen diz- kigu artikulu honetan: itzultzaileek topatzen dituzten arazoak, zenbaterainokoa den euskara- ren erabilera, etab.



NIKOLAS EZKURDIA, Zelai. "Neure sentimendua nahi det deklaratu, itzulpengintzan nago hori ezin ukatu", In: *Senez*, 23. zkia., 2001; 27-32 orr.

EHUn Zuzenbide Zibileko irakasle izanik, ikasleentzako euskarazko materiala prestatzeko orduan izan duen esperientziaren berri ematen digu Zelai Nikolasek arti- kulu honetan, hots, nolako arazoak sortu ohi diren eus- karazko testu juridikoak lantzerakoan.

MENDEBALDE KULTUR ALKARTEA. *Euskalkia eta Administrazioa*, Bilbo:

Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, 2002; 222 or.

Mendebalde Kultur Alkartek 1996az geroztik bizkaiera aztertzeke, prestigiatzeko eta bultzatzeko antolatzen dituen jardunaldietan seigarrena izan da "Euskalkia eta Administrazioa" aztertu ditue- na. Administrazioak erabiltzen

duen hizkera sarritan iluna eta ulertezina izateak arrisku larri bat dakar geroa guztiz bermatuta ez daukan hiz- kuntzarentzat: herritarra erdarazkoa irakurtzera bultza- tzea. Hori dela-eta, testuak euskara errazean ipintzeko buru-belarri dabil lanean. Eta bide horretan bere lekua behar du euskalkiak ere.



UNANUE, Amagoia;
INTXAUSTI, Nahia.
Kooperatibak eta euskara.
Historia eta aro berri baten
oinarriak, Arrasate, 2002; 151
or.

Arrasateko Kooperatiba
Esperientzia deitutakoa osa-
tzen duten enpresa eta erkun-
deek euskararekin izan duten
eta duten harremanean argi
egitera dator liburu hau. Lau
ataletan dago banatuta: lehe-
ngoan, Jose Maria

Arizmendiarrietak euskara bultzatzeko egindakoa
dakarte gogora; bigarrenean, kooperatibek euskarare-
kin izan duten harremana aztertu dute; hirugarrenean
gaur egun enpresetan euskara garatzeko martxan dau-
den planen oinarriak eta bilakaera landu dituzte; eta
laugarrenean etorkizunera begira jarri dira.



URRUTIA BADIOLA, Andres.
"Administrazio-Zuzenbidea
hiztegirako lantaldea: proposa-
mena", In: *Euskera*, 2001. 1.
zkoa.

Administrazio Zuzenbide espa-
rruari beti eman zaio garrantzi
berezia euskararen normaliza-
zioan. Horregatik,
Euskaltzaindiaren Hiztegi
Batuko lantaldearen barnean
Administrazio Zuzenbidearen
inguruko lantalde berezia era-
tzea proposatzen du Andres
Urrutiak, esparru horretako kontzepturik oinarritzkoenak
biltzeko. Xede hori betetzeko, lantaldearen osaketa,
finantzaketa eta egutegia bezalakoak aurreikusi ditu
artikulu honetan.



Tesien txokoa*

Administrazio Zuzenbidea

PÉREZ GARCÍA, Carlos: *La libre circulación de los residuos entre los estados miembros de la Unión Europea.* U: EHU. Ur: 2001. Z: Iñaki Lasagabaster Herrarte.

Eliza Zuzenbidea

BOSCH CARRERA, Jorge: *El Thesaurus Resolutionum Sacrae Congregationis Concilii y la praxis canónica.* U: NU. Ur: 2001. Z: Javier Otaduy Guerin.

DE LA PUENTE BRUNKE, Manuel: *La Rota Española.* U: NU. Ur: 2001. Z: Rafael Rodríguez Ocaña.

RODRÍGUEZ OCAÑA, Rafael: *El libelo de demanda canónica: concepto, requisitos y admisión.* U: NU. Ur: 2000. Z: Carmelo de Diego-Lora.

TRACZ, Zbigniew: *Consagración episcopal sin mandato pontificio. Estudio histórico penal-canónico.* U: NU. Ur: 2000. Z: José Bernal Pascual.

WOJCIK, Andrzej: *La unión de hecho y el matrimonio.* U: NU. Ur: 2001. Z: Juan Ignacio Bañarez Parera.

Lan Zuzenbidea

FERNÁNDEZ ORRICO, Francisco Javier: *Las pensiones no contributivas en el sistema asistencial español.* U: NU. Ur: 2001. Z: Antonio V. Sempere Navarro.

LASAOSA IRIGOYEN, Elena: *Delimitación competencial entre los órdenes social y civil de la jurisdicción: un estudio aplicado.* U: NU. Ur: 2001. Z: Antonio Vicente Sempere Navarro.

MARTÍNEZ GAYOSO, María Nieves: *Las comisiones de seguimiento de pactos y acuerdos de la función pública.* U: EHU. Ur: 2000. Z: Juan Pablo Landa Zapirain.

Merkataritza Zuzenbidea

LARRAYA RUIZ, Luis Javier: *Las cláusulas limitativas de los derechos de los asegurados (artículo 3.1 de la Ley 50/80 de Contrato de Seguro).* U: NU. Ur: 2001. Z: Verónica San Julián Puig.

LOZANO DIEZ, José Antonio: *De la razón de Estado a la razón de mercado: el caso del sistema jurídico-político mexicano.* U: NU. Ur: 2001. Z: Alejandro Llano Cifuentes.

Nazioarteko Zuzenbidea

ENCISO SANTOCILDES, Marta: *La regionalización de la Alianza Cooperativa Internacional. Análisis específico de la situación en Europa.* U: DU. Ur: 2001. Z: Alejandro Martínez Charterina.

Zuzenbidearen Filosofia

ARRIAGA IRABURU, Inés: *El derecho a la vida familiar de los extranjeros. Un estudio del artículo 8 del Convenio Europeo de Derechos Humanos.* U: NU. Ur: 2000. Z: Pedro Serna Bermúdez.

CAMPS MERLO, Marina: *La trascendencia jurídica de la identidad sexual: estudio interdisciplinar del transexualismo.* U: NU. Ur: 2001. Z: Angela Aparisi Miralles.

PÉREZ DUARTE, Javier: *Filosofía social y política de Julián Marías.* U: DU. Ur: 2001. Z: Ernesto Martínez Díaz de Guereñu.

Zuzenbide Konstituzionala

VALDERRÁBANO AMADOR, José Gilberto: *El artículo 88 de la Constitución Española. Las exposiciones de motivos y los antecedentes en los proyectos de Ley.* U: NU. Ur: 2001. Z: Juan Andrés Muñoz Arnau.

Zuzenbide Publikoa

BEAULAC, Laurent: *La distinction Police Administrative - Police Judiciaire conserve-t-elle une utilité?* U: Pau. Ur: 2001. Z: Pierre Bon.

BOUDOT, Géraldine: *La libre circulation des personnes et les droits fondamentaux dans l'Union européenne.* U: Pau. Ur: 2000. Z: Henri Labayle.

* Euskal Herriko unibertsitateetan defendatutako Zuzenbideko Doktorego Tesien zerrenda; hau da, Euskal Herriko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Deustuko Unibertsitatean eta Paueko Unibertsitatean.

Laburduren zerrenda:

U: Unibertsitatea
Ur: Urtea
Z: Zuzendaria

Unibertsitateak:

DU: Deustuko Unibertsitatea
EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea
NU: Nafarroako Unibertsitatea
NUP: Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Pau: Pau-ko Unibertsitatea

CRUZ, Florence: *L'acte législatif en Droit Franco Portugais.* U: Pau. Ur: 2001. Z: Pierre Bon.

GUTIÉRREZ GOÑI, Luis: *Contenido sustancial y consecuencias procesales de la regulación del ejercicio del derecho de rectificación en la Ley Orgánica 2/84 de 26 de marzo.* U: NU. Ur: 2001. Z: Julio Muerza Esparza.

IZAGUIRRE GUERRICAGOITIA, Jesús María: *La intervención de las partes en la investigación preliminar del Ministerio Fiscal.* U: EHU. Ur: 2000. Z: Juan Luis Gómez Colomer.

MAYORDOMO RODRIGO, Virginia: *Aspectos criminológicos, victimológicos y jurídicos de los malos tratos en el ámbito familiar.* U: EHU. Ur: 2000. Z: José Luis de la Cuesta Arzamendi.

MIRANDA VÁZQUEZ, Carlos de: *Las excepciones materiales en el proceso civil español.* U: NU. Ur: 2000. Z: Faustino Cordón Moreno.

MONTANO Y GÓMEZ DE ALIA, Pedro Julio: *Medicinas alternativas y Derecho Penal.* U: NU. Ur: 2001. Z: Jesús M^a Silva Sánchez.

ROSENDE VILLAR, Cecilia: *La extensión de los efectos de la sentencia a terceros (en especial, el artículo 110 LJCA/1998).* U: NU. Ur: 2001. Z: Faustino Cordón Moreno.

Zuzenbide Zibila

ALKORTA IDIAKEZ, Itziar: *El tratamiento jurídico de la reproducción asistida: técnicas, finalidades y usuarios.* U: EHU. Ur: 2001. Z: Jacinto Gil Rodríguez.

CARDENAL CARRO, Rafael: *La impugnación de acuerdos del consejo de administración de las sociedades anónimas.* U: EHU. Ur: 2001. Z: José Miguel Embid Irujo.

FERNÁNDEZ-SANCHO TAHOCES, Ana Suyapa: *Las donaciones por razón del matrimonio en el Código Civil (evolución histórica y régimen vigente).* U: EHU. Ur: 2000. Z: José Javier Hualde Sánchez.

LÓPEZ VERA, Olga: *La esclavitud en la jurisprudencia civil del Tribunal Supremo.* U: NU. Ur: 2001. Z: Luis Arechederra Aranzadi.

MORÁN MORALES, Claudia Cecilia: *El concepto de filiación en la Ley de Fecundación Artificial.* U: NU. Ur: 2001. Z: Luis Arechederra Aranzadi.

VILLANUEVA VILLANUEVA, Ernesto: *Autorregulación informativa y consejos de prensa alrededor del mundo.* U: NU. Ur: 2001. Z: Ana Azurmendi Adarraga.

Bidean dauden Legeak*

1. Eusko Legebiltzarra

1.1. Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena
Euskadiko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen Legea bigarren aldiz aldatzekoa	2002.03.12	2002.03.15

1.2. Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea Sortzeko 5/82 Legea aldatzekoa	2002.06.05	Talde Popularra	2002.06.07

2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena
Nafarroako Foru Komunitateko goi irakaskuntzan euskara erabiltzeari buruzkoa	2002.05.07	2002.05.27
2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietarako Nafarroako Tributueterako Ogasun Lokalen Parte-hartze Fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula finkatzeari buruzkoa	2002.05.15	2002.05.27
Nafarroako 2003-2006 Estatistika Planari buruzkoa	2002.05.22	2002.06.03
Nafarroako Gobernuari Foru Dekretu Legegile baten bidez Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen Testu Bateratua prestatu eta onesteko baimena ematen zaionekoa	2002.05.29	2002.06.10
Tabakoaren aurrean osasuna aurreikusi, sustatu eta babesteari buruzkoa	2002.05.29	2002.06.10
Karrera profesionalaren sistema aplikatzeko eremua Osasun Saileko beste langileei zabaltzeari buruzkoa	2002.05.29	2002.06.10
Irakaskuntza ez unibertsitarioak hobetzeko neurriei buruzkoa	2002.05.31	2002.06.10

* OHARRA: Irakurle, lege proiektu hauek 2002ko uztailaren 9an zeuden egoeran agertzen dira tauletan. Litekeena da aldizkariaren argitarapenera bitarteko denboran horietakoren bat lege bihurtu izana.

ITURRIAK: Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko mahaiaik

